

**14/2021 TXOSTENA, AZAROAREN 25EKOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN A HOLKU-  
BATZORDEARENA****XEDEA: ERABAKI-PROPOSAMENA, GOBERNU KONTSEILUARENA, EUSKAL AUTONOMIA  
ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO SAILEI BITARTEKO PROPIO GISA  
MANDATUAK EGITEKO BAIMENA EMATEN DIENA.****I.- AURREKARIAK.**

2021eko urriaren 27an, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Aholkularitza Juridikoak txostena eskatu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailei bitarteko propio gisa mandatuak egiteko baimena ematen dien Gobernu Kontseiluaren akordio-proposamenari buruz.

Espedientea prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetu da (erreferentzia: AAAA\_ACG\_59272/21\_10).

**II. – EDUKIA.**

Erabaki-proposamenaren xedapen-zatian honako erabaki hauek biltzen dira:

*Adostasuna ematen da eta espresuki baimentzen da AUKERAK, Gizarteratzearen Euskal Agentzia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrearen eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bitarteko propio pertsonifikatu izan dadin. Kontratazio Publikoa Euskadin plataforman argitaratuko da zirkunstantzia hori, eta mandatuak zer jarduera-eremutara mugatzen diren ere adieraziko da.*

**III.- GOGOETA JURIDIKOAK.**

Aukerak, Gizarteratzearen Euskal Agentzia, sortzeko irailaren 30eko 3/2021 Legearen bidez sortu zen erakunde hori zuzenbide pribatuko ente publiko gisa, Euskadiko espetxeetako presoan gizarteratzea eta laneratzea errazteko.



Arlo horretako eskumena eskualdatu delako sortu da entea, Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoak erabakitakoaren arabera, zeina dekretu hauetan jaso baitzen: 474/2021 Errege Dekretua, ekainaren 29koa, Espetxe-arloko estatu-legeak betearazteko esparruan Estatuko Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen dizkion eginkizun eta zerbitzuei buruzkoa, eta 169/2021 Dekretua, uztailaren 6koa, zeinaren bidez onartzen baita Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakia, espetxe-arloko estatu-legeak betearazteko egitekoak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzekoa.

Hau jasotzen da espedienteari erantsitako memorian:

*2021eko abenduaren 31n bukatuko da Espetxe Lana eta Enplegurako Prestakuntza izeneko estatu-erakundeak hartutako konpromisoa, euskal espetxeetako ekoizpen-lantegiak kudeatzen jarraitzeko. Hori dela eta, 2022ko urtarrilaren 1a baino lehen jarri behar da martxan AUKERAK entea, aurretik aipatutako estatu-erakundea betetzen ari den eginkizunen kudeaketa bere gain har dezan Euskal Autonomia Erkidegoak, barne-langileen lan-harremanen jarraitasuna bermatuta eta lan-eskubideak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak murriztu gabe.*

*AUKERAK abian jartzeko, jarduerak hasteko agindua xedatzeaz gain, aldez aurreko prestaketa-ekintza batzuk ere egin behar dira, Eusko Jaurlaritzaren zenbait kudeaketa-alorren esku-hartzea eskatzen dutenak. Ekintza horiek ahalik eta azkarren egin behar dira, ente berriak abenduaren 31 baino lehen egin behar dituen jarduerak aurreratu ditzan, orduan amaitzen baita estatu-erakundearen kudeaketa.*

*Horrenbestez, egun hori baino lehen, AUKERAK enteak bere jarduerak hasita eduki behar ditu, eta, gainera, alta emanda egon behar du erakunde gisa zerga eta gizarte-segurantzaren ondorioetarako. Horretaz gain, gutxieneko egitura bat ere eduki behar du, espetxe-lan produktiboak eta lan-harreman berezia duten presoen enplegatzaile izateak dakarzkion betebeharrak bere gain hartzeko, eta EAEko espetxeetako administrazioak egindako ekoizpen-lantegien mandatuak onartu behar ditu euskal espetxeak moldatzeko jarduerak egiteko, hala nola elikadura-, ekonomato- eta kafetegi-jarduerak, eta elikagai-errazioen banaketarekin, osasun-loteen hornidurarekin eta mantentze-lan eta jarduera osagarriekin erlazionatutako jarduerak. Eta gauza bera, kanpo-enpresen laguntzarekin burutzen diren beste ekoizpen-lantegi batzuk egiteko ere.*

Era berean, adierazten da betetzen direla *Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 32. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzen duen uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuan eskatzen diren baldintza guztiak, baita mandatuen hartzaile*



*den entearen jardueren ehunekoari buruzkoa ere, negozio-proiektzioak kontuan hartuta, eta, objektiboki, AUKERAK enteak behar beste baliabide pertsonal eta material edukiko ditu dagozkion mandatuak egiteko.*

Horrela bada, txostena egin zaion erabaki-proposamenaren helburua da memorian jasotzen diren prestaketa-urratsak egitea, eta zehazki, bi arau hauetan xedatutakoa betetzea: batetik, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen –hemendik aurrera, SPKL– 32.2.d) artikuluan xedatutakoa, zeinak Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen baititu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak, eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren IV. Tituluko 1. Sekzioan xedatutakoa.

SPKLren 32. artikulua 4. apartatuan adierazten da zer baldintza bete behar dituzten pertsona juridikoez, zuzenbide publikoek nahiz zuzenbide pribatuek, beren artean independenteak diren bi botere adjudikatzaile edo gehiagoren bitarteko propio pertsonifikatutzat hartzeko.

SPKLren 32.4 artikulua a) eta b) letraren edukia dagokionez, Kontratazio Batzordearen 2021eko azaroaren 3ko txostenean jasotako ondorioak eta oharra aipatuko ditugu. Beraz, txosten hau c) letraren xedatutakoa aztertzea mugatuko da, eta, zehazki, SPKLren 32. artikulua 2. apartatuaren d) letrara egiten duen aipamena aztertzea.

Hortaz, d) letraren honako hau zehazten da:

*"d) Mandatuaren hartzaile den erakundeak berariaz aitortu beharko du, bere estatutuaren edo sorrera-egintzan, mandatu ematen duen botere adjudikatzaile jakinaren bitarteko propio pertsonifikatua dela, honako baldintza hauek bete ondoren:*

*1.a Zer botere adjudikatzailekiko bitarteko propioa izango den, haren adostasuna edo berariazko baimena.*

*2.a Erakunde publikoak egiaztatu beharko du bere bitarteko propioa izango den ente horrek giza baliabide eta baliabide material egokiak dituela mandatuak haren xede sozialaren arabera betetzeko.*

*Mandatuaren hartzaile den entearen estatutuaren edo sorrera-egintzan honako hauek zehaztu beharko dira: enteak izaera hori zer botere adjudikatzailekiko duen, eman ahal zaizkion mandatuen araubide juridiko eta administratiboa zein den eta bitarteko propio pertsonifikatu den botere adjudikatzaileak deitutako lizitazio publikoetan parte hartzeko ezintasuna –halere,*

*lizitatzailerik aurkezten ez bada, lizitazioaren xede den prestazioa gauzatzeko mandatua eman ahal izango zaio-.*

*Letra honen 2. zenbakian ezarritako baldintza betetzen dela pentsatuko da enteak dauzkan talde, azpitalde eta kategoriei dagokien sailkapena lortu duenean».*

Letra horren lehen paragrafoan xedatutakoa kontuan hartuta, adierazten zaigu bitarteko propio izatea onartu beharko dela estatutuetan edo sorrera-egintzan. Entearen estatutuak oraindik onartu ez badira ere eta Batzorde honek jada estatutuen txostena egin badu ere, Aukerak, Gizarteratzearen Euskal Agentzia, sortzeko irailaren 30eko 3/2021 Legea jotzen badugu, legearen artikulua bakarraren bederatzigarren puntua hauxe jasotzen da: *"Aukerak EAEko administrazio publikoen eta haien mendeko edo haiei lotutako sektore publikoaren bitarteko propiotzat hartzen da, agentziaren estatutuetan eta sektore publikoko kontratuen legerian adierazitako moduan".*

Era berean, artikulua hori Euskal Autonomia Erkidegoko 2022rako Aurrekontuen Legearekin osatuko da, zeinak hamalagarren xedapen gehigarrian honako hau aurreikusten baitu:

*HAMALAGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.- Bitarteko propioaren eta zerbitzu teknikoaren izaera aitortzea AUKERAK Gizarteratzearen Euskal Agentziari.*

*Sektore publikoko kontratuei buruzko araudian xedatutako ondorioetarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bitarteko propio eta zerbitzu tekniko izaera aitortzen zaio AUKERAK Gizarteratzearen Euskal Agentziari —irailaren 30eko 3/2021 Legearen bidez sortu zen—. Horrez gain, euskal administrazio publikoen eta haien mendeko edo haiei lotutako sektore publikoaren bitarteko propiotzat hartu ahal izango da, agentziaren estatutuetan eta sektore publikoko kontratuen legerian adierazten den moduan.*

Hau da, inolako zalantzarik gabe ondoriozta dezakegu Aukerak sortzeko arauaren asmoa dela ente hori Administrazio Orokorraren eta Lanbide erakunde publikoaren bitarteko propio izatea.

Orain, txosten honen xede izan beharko lukeen puntuan jarri behar dugu arreta: SPKLren 32.2.d) artikulua lehen puntuan, alegia. Horrela, bitarteko propio bat bitarteko propiotzat hartzeko, bitarteko propiotzat joko denaren botere adjudikatzaileak adostasun edo baimen espresua eman beharko dio.

Beraz, adierazpen espresu horren helburua da administrazio orokorrak sortu berri den enteari mandatuak emateko borondatea duela erakustea. Adierazpen-egintza formal bat da, eta ez dauka



inolako beste betekizunik. Hala eta guztiz ere, kontuan hartzekoa da, adierazpenak aldez aurreko betekizunik ez izanagatik ere, ez duela eraginkortasun juridikorik izango, Aukerak enteak bitarteko propio izateko SPKLren 32. artikuluan jasotako gainerako baldintzak betetzen ez baditu. Hau da, bitarteko propio izateko adostasuna eman ahal izateko, SPKLren 32. artikuluan araututako gainerako baldintzak betetzen direla adierazten duten datu guztiak jaso beharko dira espedientean. Baldintza horietako batzuk Aukerak entearen estatutuak onartzeko espedientean daude sartuta, DNCG\_DEC\_10207/21\_10 kodearekin. Horretaz gain, bereziki jaso beharko da sail sustatzaileak egiaztatu duela ente horrek badituela baliabide pertsonal eta material egokiak mandatuak egiteko, bere xede sozialaren arabera. Era berean, Batzorde honen 2021eko azaroaren 3ko txostenean egindako gogoetak jaso beharko dira.

#### **IV.- ONDORIOAK.**

Horrenbestez, proposamena egin duen sailak Gobernu Kontseiluaren erabaki-proposamena aurkeztu ahal izango du Aukerak ente publikoa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren bitarteko propio pertsonifikatua izan dadin, sail sustatzaileak txosten honetan adierazitako alderdiak egiaztatu dituela espedientean jasotzen denean.